

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroan izango dira 2012ko Espainiako Txirrindularitza Itzuliaren irteera eta lehen etapa

Jiménez lehendakariordeak Kantabrian iragarri du lehen etaparen Iruñea eta Vianaren arteko ibilbide bat osatuko dela

Jueves, 08 de septiembre de 2011

2012ko Espainiako Txirrindularitza Itzuliak Iruñetik irtengo du; gainera, lehen etapa osoa Foru Erkidegoan egingo da, Iruñea eta Viana artean.

Hala iragarri du gaur lehen lehendakariorde, Roberto Jiménezek, Vueltako zuzendari nagusi Javier Guillénekin batera, Kantabrian egindako ekitaldi batean. Biek ela biek beren poza agertu dute lortutako akordioagatik eta, horri esker, lehiaketa hori Nafarroara itzuliko da erkidegotik azken aldiz duela 18 urte pasa ondoren.

Irteera eta helmuga Iruñean jarriko diren atariko etapa abuztuaren 18 an jokatu da, eta lehen etapa, berriz, hurrengo egunean, Iruñea eta Vianaren artean. Ibilbideak oraindik erabakitze daude, eta haiek diseinatzeko, txirrindularitzan adituak diren nafarren iritziak kontuan hartuko dira. Antolatzaileen helburuetako bat Frantziako Tourra bost aldiz irabazi zuen Miguel Induraini omenaldi bat egitea da.

Datorren astean Antolakuntza Batzorde bat osatuko da, eta bertan parte hartuko dute: Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak eta Unipublic enpresak (Vueltaren antolatzailea); Miguel Induraini eta txirrindularitza-taldeetako ordezkariak ere gonbidapena luzatuko zaie.

Jiménez lehendakariordeak bere agerraldian gogora ekarri duenez, "Nafarroa txirrindularitzarekin zorretan zegoen, 1994. urtetik Vueltara ez baitzen Foru Erkidegotik pasatzen".

Gainera, nabarmendu du Foru Gobernuak interes handia duela Nafarroa mundu guztiari erakusteko. "Nazioarte-mailako dimentsioa eman nahi diogu Nafarroari eta jende abegitsua garela erakutsi. Ahalik eta harrera beroena egingo diogu Vueltari", baieztatu du.